

01

UZTAILA 2016 JULIO



Kolorez Bizi
zumaian

Zumaia Udal Aldizkaria Revista municipal de Zumaia

Zumaia egunez-egun eraikiz eta hobetuz



ZUMAIARRENTZAT LANEAN

- 02 Zumaia eraikitzen
- 03 Balantzea
- 04-05 Aurrera eramandakoa
- 06-09 2015-2019
legealdirako ardatzak

ZUMAIARREN TXOKOA

- 10-11 San Pedro Jaiak 2016
- 12-13 Kale inkesta
- 14-15 Lucia Lacarrari elkarrizketa
- 16-17 Erreportajea:
Memoria historikoa

ALDERDIEN IRITZIA

- 18-19 EAJ-PNV Herria aktibatzeko
beharrari erantzunez lanean
- EH BILDU Etorkizuneko Zumaia
denon artean erabakitzeko garaia da
- PSEE-EE Urtebeteko legealdia Zumaian

Oier Korta



Zumaiaiko Alkatea

ZUMAIA ERAIKITZEN

Denbora azkar igaro da eta jada urtebete egin dugu Zumaiaiko Udaletxean. Oraindik gogoan ditut nolakoak izan ziren gure lehen egunak: urduritasuna, errespetua, noraez apur bat... baina, bereziki, Zumaia eta zumaiarrentzat lan egiteko gogoak; hau izan da lehen unetik gure lan jardunaren oinarria.

Lan talde berria ginen eta gutako askok Udaletxe baten funtzionamendua zer nolakoa den ere ikasi behar izan dugu, baina gure jomuga beti izan da berdina: Udala herritarren eskura jartzea, zumaiarrendik gertu egotea eta euren beharrei erantzuna ematea.

Ilusioz beterik hartu nuen nik kargua. Noski, alkate izateak ardua eta erantzukizun haundiak dakarzki eta honek nabarmen aldatu du nire bizitza, bereziki pribatutasuna alde batera utzi behar izan dudalako. Baina honek, aldi berean, herritarrentzat zuzenean lan egiteko aukera ere eman dit, horregatik, ez nuke sekula ere aldatuko hartutako erabakia. Lan gogorra da, herriko irudi publikoa zara, honek dakartzan alde on eta txar guztiekin, baina nik, Zumaian eta zumaiarrendan sinisten dut eta honek egunerokotasunean sortzen diren erronka eta arazoei aurre egiteko balio dit.

Gainera, ez nago bakarrik ibilbide honetan. Zinegotzi talde eta udal teknikari ezin hobeak ditut alboan eta guztiok gauzak hobetzeko xedez jarraituko dugu lanean. Ziur nago bidean behin baino gehiagotan hanka sartuko dugula baina akatsak onartu eta hauetatik ikasteko prest gaude, betiere, Zumaia eta zumaiarrentzat egiten dugun lana hobetzeko.

CONSTRUYENDO ZUMAIA

Ha pasado un año desde que llegamos a la alcaldía, llenos de nervios e inquietudes pero sobre todo, rebosantes de ilusión y ganas de trabajar por y para Zumaia y las/los zumaiarras. Es obvio que ser alcalde supone mucha dedicación y sobre todo, una gran responsabilidad, pero yo creo en Zumaia y en sus ciudadanas y ciudadanos y esto me sirve para afrontar los retos y problemas del día a día.

Además, cuento con un magnífico equipo humano que me acompañará en mi andadura y todos nosotros estamos más que dispuestos a seguir aprendiendo y mejorando para trabajar siempre por y para la ciudadanía.



Udalaren egoera hobetzea, udala herritarren zerbitzura jartzea, herritarrendik gertu egotea eta euren ongizate eta bizi kalitatea hobetzea lehenetsi ditu gobernauak lehen urte honetan



Zumaiaiko egungo udal gobernauak urtea bete du. Gauzak egiteko beste eredu bati heldu nahi izan dio gobernu taldeak, pertsonak ardatz hartuta, euren lana gardentasunean, adostasunean, parte hartzean eta elkarlanean oinarrituz.

Udalaren gidaritzza hartu eta lehenik eta behin, egoera aztertu eta arazoak identifikatu zituen gobernauak, ondoren, horiei konponbide ematen hasteko. Gauzak horrela, herritarren berehalako behar eta arazo erantzuteari lehentasuna emanda, udal kontratu eta aseguruak eguneratzeari ekin zion gobernauak, horietako asko iraungita zeudelako. Ildo beretik, brigadaren eginkizun eta betebeharrak ere eguneratu eta zehaztu dituzte, betiere, herritarrei zerbitzurik egokiena eskaintzeko helburuarekin.

La transparencia, la participación, la colaboración y el acuerdo, como base de la labor municipal

Gran participación en la elaboración del Plan Estratégico

Este primer año también se ha puesto en marcha la elaboración del Plan Estratégico 2015-2025, el cual se ha desarrollado en colaboración con la ciudadanía, los agentes del municipio y los técnicos del Ayuntamiento, con el objeto de conocer de primera mano las opiniones y necesidades de Zumaia y sus habitantes. Así pues, el gobierno se ha comprometido a incluir dentro de sus principales líneas de trabajo las acciones definidas en este plan.

URTEBETEKO AGINTALDIAREN BALANTZEA



Ekonomia eta enplegua, gure lehentasuna

Gogor heldu dio Udalak ekonomia eta enpleguaren sustapenari lehen urte honetan. Herriaren eta herritarren ongizatean eragin zuzena duela aintzat hartuta, ekimen ezberdinak burutu ditu Udalak esparru honetan. Enpresa txiki eta ertainekin bildu da beren egoera eta beharrak gertutik ezagutzeko, horren harira, industria, ekonomiaren eta enplegu sustapenaren motor gisa indartzeko. Era berean, etorkizuneko hirigintza lanetan, tokiko industria eta herriko eragile autonomoak aintzakotzat hartzeko konpromisoa hartu du gobernua, elkarlan publiko-pribatua sustatuz. Lehen urtez, ekonomia eta ekintzailatza planerako diru partida jaso da aurrekontuetan, zumaiarren lanpostu aukerak areagotzeko helburuz.

Zumaiarrei egokitutako herria eraikiz

Herritarrak udal jardunaren ardatz nagusia izanik, herri atseginagoa, irisgarriagoa eta herritarrei egokitutakoa eraikitzeko nahia azaldu du Udalak, aisialdi eta kirolaren aldeko apustu argia eginez. Gauzatutako ekintzak, beraz, helburu horren baitan burutu dira: Beheko Plazako egokitzapen lanak, nagusien etxea eraberritzea, Aitzuriko frontoia eta ingurua urbanizatzea, bizikleta eguna edota herriko puntu beltzen eta bide seguruaren inguruko azterketa. Horiek guztiak herriko eragile ezberdinekin elkarlanean eraman dira aurrera, adostasun bideei helduta.

PLAN ESTRATEGIKOAREN AURKEZPENA | PRESENTACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO

2015-2025 Biharko Zumaiara Boga Plan Estrategikoaren garapenaren baitan, 18 bilera egin dira 2015eko urritik 2016ko maiatzera bitarte. Guztira, 200 bat lagunek hartu dute parte.

Aurkezpena, **irailaren 21ean**, arratsaldeko **18:00etan** izango da **Oxford aretoan**. Bertan, bilera hauen ondorioak eta emaitzak aurkeztuko zaizkie zumaiarrei.

El Plan Estratégico 2015-2025 Biharko Zumaiara Boga será presentado el 21 de septiembre a las 18:00 en la sala Oxford donde se informará a las/los zumaiarras sobre las conclusiones y los resultados obtenidos en las 18 reuniones que se han llevado a cabo este año.

LEHEN URTE HONETAN AUERRERA ERAMANDAKO EKINTZAK INICIATIVAS LLEVADAS A CABO ESTE PRIMER AÑO

EKAINA 2015 JUNIO

Sorosleen ordutegiaren luzapena, segurtasuna hobetzeko



Uda iritsi eta hondartzaren garaiari hasiera eman bezain pronto, sorosleen ordutegia luzatu zen arratsaldeko 20:00ak arte.

UZTAILA 2015 JULIO

Renovación de contratos municipales

Nada más entrar en el Ayuntamiento, el equipo de gobierno actualizó los contratos de luz de 15 edificios municipales, logrando un ahorro de 31.597 euros. Asimismo, también definieron el uso y el padrón de varios edificios de propiedad municipal.

ABUZTUA 2015 AGOSTO

Kale garbigailu berria

Udal teknikariak, aurreko gobernuaren irizpideak jarraituz, 121.683'65€ balio zituen kale garbigailu bat erostear zeudela, udal gobernu berriak, makina honen kostua, kale garbiketaren esleipen berriaren baldintzen barnean jasotzea lortu zuen, gaitzostua ekidinez.

IRAILA 2015 SEPTIEMBRE

Aurrekontuen azterketa sailka

Gobernu taldea, Udaleko sail bakoitzeko teknikariek bildu zen, hauen departamentuko behar eta lanak gertutik ezagutzeko eta modu honetara, aurrekontuetako diru partidak beraiekin landu eta aztertu ahal izateko.

URRIA 2015 OCTUBRE

Aprobación de las ordenanzas fiscales para el 2016

En octubre se aprobaron las ordenanzas fiscales para el 2016. Para ello, se llevó a cabo un estudio de costes de servicios, que no se había realizado en los últimos años y por lo tanto, no cumplía lo exigido por la ley. Asimismo se revisaron y actualizaron las tasas e impuestos, se eliminó el recargo del IBI y se aplicó la bonificación del 100% a aquellas/os ciudadanas/os con vehículos de más de 25 años de antigüedad.

AZAROA 2015 NOVIEMBRE

Kale eta zabor bilketa kontratuen esleipena eta infocity webgunea

Azaroan, kale eta zabor bilketa kontratuak esleitu ziren. Azken honen esleipenaren baitan, herritarrentzat 8 sentsibilizazio kanpaina ere jaso ziren. Era berean, Udala, Infocity programara atxiki zen, non, <http://zumaia.info-citi.es/eu/> webgunearen bitartez, herritarrek, bilketa datuak ezagutu, arazo eta eragozpenak salatu eta proposamen berriak egin ditzaketen.

ABENDUA 2015 DICIEMBRE

Presupuestos municipales 2016

Los presupuestos de 2016 fueron aprobados con los votos a favor de EAJ-PNV y PSE-EE y los votos en contra de EH Bildu. Por primera vez en el Ayuntamiento se recogió una partida presupuestaria destinada a la promoción económica, siendo éste, uno de los principales ejes de trabajo del nuevo gobierno.

URTARRILA 2016 ENERO

Zuloaga parkearen egokitzapena eta herritartzea

Zuloaga parkea hobetzeko eta oinezkoak lehenesteko, hainbat egokitzapen lan burutu ziren. Besteak beste, eserlekuak konpondu, lorategiak jarri, zebra-bideak margotu eta taxi-geralekua lekualdatu ziren.

OTSAILA 2016 FEBRERO

Nueva caseta de reciclaje en Beheko Plaza



Para facilitar el reciclaje se instaló una nueva caseta, revestida de madera para que se integrase con el entorno, en Beheko plaza

para depositar en ésta distintos tipos de residuos – radiografías, pilas, aparatos eléctricos...-, evitando así, el uso del vehículo para depositarlos en el garbigune situado en el polígono Joxe Mari Korta. También se instaló un refrigerador en el Garbigune para los residuos generados por las pescaderías.

MARTXOA 2016 MARZO

Argiteria publikoa hobetzeko, energia aurrezteko eta herritarren segurtasuna hobetzeko audiotretza

Eraikin publikoen argi kontratuak eguneratu ostean, Udalak, argiteria publikoari heldu eta hau legediak agintzen duen parametroetara egokitzeko, efizientzia energetikoa hobetzeko eta herriko puntu beltzei konponbidea emateko audiotretza burutu zuen Eficien enpresaren bitartez. Lan hauen kostua 504.219€koa izango da eta diru hau, fondo europearretatik jasoko du Udalak. Azterketa lan honi esker, herrian dauden gabeziak eta efizientzia aldetik baxuak diren puntuak identifikatu ahal izan ziren. Guztira, 841 argi aldatuko dira eta modu honetara, urteko 63.600€ aurreztuko dira.

%75eko aurrezkia igogailu publikoen kontratu berriarekin

Kudeaketa eraginkor baten alde eginez, herriko 13 igogailu publikoen kudeaketa bateratu eta kontratu berriarekin, urtean 38.885€ aurrezteko lortu du Udalak.

San Telmo jaietan udaltzaingoa 24 ordur

San Telmo jaietarako udaltzaingoaren zerbitzu ordutegia eguneko 24 ordutara luzatu zen, herritarren segurtasuna bermatzeko. Zerbitzu hau San Pedro jaietan ere eskeini da.

APIRILA 2016 ABRIL

Mejoras en el Hogar del Jubilado

Se han reformado, con un coste de 54.279,55€ los baños del bar y la 2ª planta y se ha construido un vestuario para las trabajadoras del centro, todo ello con el objeto de ofrecer un mejor servicio a las personas usuarias del centro.



MAIATZA 2016 MAYO

Ate automatikoak herritarren irisgarritasuna bermatzeko

Udala eta udal zerbitzuak herritarren eskura jartzea eta herritar ororen, bereziki, desgaitu eta mugimendu urriko pertsonen, irisgarritasuna bermatzea helburu hartuta, ate automatikoak ezarri dira udaletxeko sarbidean.

%52ko aurrezkia udal aseguruan

Era berean, Udalak, lehiaketa publiko bidez esleitu zuen 2008tik iraungita zegoen udal zerbitzuen aseguru kontratu berria. Honekin 35.000€tik gorako aurrezkia lortzeaz gain, kontratatutako estaldura areagotzea ere lortu zen.

Udaltzaingoa berdintasunerako pausoak

Lehen emakumezko udaltzaina hasi zen Zumaiako udaltzaingoa lanean, aurrerago bigarren bat ere hasi zelarik, udaltzaingoa berdintasunerako pausoak emanez.

EKAINA 2016 JUNIO

Urbanización del frontón Aitzuri y reconstrucción del dique de Zumaiar



Gracias a los criterios establecidos por el equipo de gobierno, el proyecto de urbanización del frontón Aitzuri, se ha llevado a cabo en una sola fase, y no en tres como estaba previsto, logrando así finalizar

las obras mucho antes de lo esperado y además, con un cuantioso ahorro económico. Se ha construido una nueva carretera, un paseo para peatones y una zona de aparcamiento, todo ello acompañado de zonas verdes. Asimismo, ya han comenzado las obras de reconstrucción y refuerzo del dique que darán una solución definitiva al actual problema de inestabilidad y seguridad de la zona. Gracias a las reuniones mantenidas entre el Ayuntamiento y la dirección de Puertos del Gobierno Vasco, el equipo de gobierno ha logrado una inversión de 3.074.267'27 euros que correrán a cargo del Gobierno Vasco y al mismo tiempo, también ha logrado que el dique mantenga su esencia, sin sufrir ningún tipo de alteración en su actual imagen.

UZTAILA 2016 JULIO

Argazki erakusketa, tren txu-txua eta zaldigurdia uda egunak girotzeko

Zumaiako kaleak kolorez beteko dira, Udalak, Distira Argazki Elkartearekin elkarlanean antolatu duen argazki erakusketari esker. Bestalde, tren turistikoa berreskuratu da eta zaldigurdi bat ere ezarriko da ibilbide turistikoak egiteko. Helburua da, herritarren eta bisitarien mugikortasuna eta irisgarritasun hobetu eta bermatzea.

2015-2019 LEGEALDIRAKO LAN ARDATZ NAGUSIAK

Zumaiar orori zerbitzurik egokiena eskaintzeko, beren beharrei behar bezala erantzuteko eta etorkizunera begira proiektu berriak garatzeko, Udalak, lan ardatz nagusi batzuk zehaztu ditu legealdi honetarako.

Ezarritako lan ildoek eta aurrera eraman nahi diren ekintzek, betiere, pertsonak lehenetsiko dituzte, azken batean, herritarrek direlako Udalaren jardunaren jomuga nagusia.

GARAPEN EKONOMIKOA DESARROLLO ECONÓMICO

Lanak burujabe egiten du pertsona eta jarduera ekonomikoaren sustapenak herriaren aberastasun eta herritarren ongizatea ekarriko ditu.

Horregatik, Udalak garapen ekonomikoaren eta enplegu sustapenaren eragile aktibo izan behar du. Horretarako, tokiko industria babestu eta ekonomiaren motore gisa duen balioa indarrean jarri behar da, gainerako sektoreak ahaztu gabe. Merkataritza indartzea eta turismo bizirako ideia berriak garatzea ere lehentasunezkoa izango da, turismoa dibertsifikaziorako aukera bihurtzeko.



Argazkia: Javier Carbalo

Acciones concretas a desarrollar en este ámbito:

- *Impulsar la colaboración público-privada con las empresas, los comercios... para favorecer la gestión compartida con los agentes económicos.*
- *Destinar una partida económica anual al plan de empleo para aumentar la inserción laboral de las y los zumaiarras.*
- *Aumentar la oferta hotelera y cuidar y conservar el patrimonio histórico- San Telmo, Convento- y el Geoparque, como atracción turística.*
- *Plan para la revitalización de la parte vieja y acciones para fortalecer el comercio y la hostelería local.*
- *Adecuar y/o acondicionar las empresas al núcleo urbano, de modo que éstas queden totalmente integradas en el municipio, sin alterar la convivencia y la actividad mercantil de la zona.*
- *Elaborar programas de emprendimiento y nuevas iniciativas para mejorar la empleabilidad de las personas paradas.*
- *Fortalecer la feria y poner en valor los productos y los productores locales.*



El Ayuntamiento ha establecido varios ejes de actuación para la actual legislatura con el objeto de mejorar los servicios prestados a la ciudadanía, responder a sus necesidades y peticiones y desarrollar nuevos proyectos de cara a ofrecer a la población zumaiarra nuevas oportunidades y alternativas. En cualquier caso, los ejes de actuación, así como las acciones que se prevén llevar a cabo tendrán como eje central a las y los zumaiarras y su bienestar, ya que, a fin de cuentas, las personas son lo más importante.

LURRALDEA TERRITORIO

Éste área abarca temas tan diversos como la movilidad, la accesibilidad, el urbanismo, el medioambiente y/o las políticas de vivienda.

A este respecto, las acciones planteadas dentro de este eje de actuación tienen como objeto construir una Zumaia pensada para todas y todos, accesible, amable, integrada, sostenible y respetuosa con el medioambiente y que responda y se adecue a las necesidades futuras y del día a día de las y los zumaiarras y de sus barrios.



Alor honetan burutzea aurreikusi diren ekimenak:

- Etxebizitza politika eraginkorrak sustatzea eta Alokabiderekin elkarlanean alokairu programak indartzea gazteen emantzipazioa errazteko.
- Zumaiaiko irisgarritasuna hobetzea helburu hartuta, herriko eraikinak irisgarritasun ikuspegitik hobetzea, etxeetan igogailuak jartzeko programak berreskuratzea eta igogailuak eraikitzea San Jose kalean eta Larretxon.
- Trafiko arazoei irtenbide ematea eta aparkaleku kopurua handitzea, Axular eta Etxezarreta bulevar bihurtuz eta aparkaleku berriak sortuz bertan.
- Santilloko hondartzan kantina eta beharrezko zerbitzuak jartzea, San Telmo kalea hobetzea, beheko plaza egokitzea eta estaltzea eta Victoriano Arrate eta Puntanqueta erabilera anitzeko guneak bilakatzea.
- Oikia, Narrondo eta Artadiko auzoek dituzten gabeziei erantzuna ematea.
- Babestutako guneak zaindu eta ingurumen ziurtagiriak eskuratzea.
- Portuari dagokionean, Eusko Jaurlaritzarekin jabetza kontuak konpontzea.
- Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzea, herriko lur eraikigarriak, lur industrialak etab. zehaztu eta etorkizunera begira proiektu berriak garatzeko.



2015-2019 LEGEALDIRAKO LAN ARDATZ NAGUSIAK

HERRIGINTZA

Zumaiarrekin bat eginez, elkarlanean, elkarrekin... herri bizia, parte hartzailea, eta sozialki kohesionatua eraikitzea da xedea; berdintasuna, bizikidetza eta lankidetza guztiaren oinarrian ezarriz eta kirola eta aisia giltzarri bihurtuz, Zumaiaren nortasun-elementu izan daitezen.

Alor honetan burutzea aurreikusi diren ekimenak:

- Elkarbizitza plana garatzea, memoria historikoa lantzea eta heldu eta gazteen arteko jakinduria transmisioa ahalbidetu eta zaintzea.
- In memorian plaka lekualdatu eta duintzea eta herrian izandako biktimei urtero omenaldia egitea.
- Euskararen erabilera esparru guztietan lehenetsi eta bermatzea eta honen erabilera sustatzeko ekimen ezberdinak gauzatzea.
- Gizarte eragileekin lankidetza sustatu eta hitzarmenak sinatzea, elkarlanean, ekintzak berriak martxan jartzeko.
- Partaidetza ekimen ezberdinak burutu eta herritarren parte-hartzea sustatzea.
- Oikiako eskola berria eraikitzeko proiektua lantzea. Dagoeneko, lurren lagapena egin dio Udalak Eusko Jaurlaritzari.
- Baloreetan oinarritutako eskola kirola landu eta adin guztietan kirol praktika ahalbidetu eta sustatzea.



GIZARTE ONGIZATEA SERVICIOS SOCIALES

El objetivo es garantizar los servicios sociales y la justicia social, sin dejar a nadie de lado, atendiendo a quienes más lo necesitan o requieren de cuidados especiales; dando prioridad a las personas con movilidad reducida y especialmente, a las personas mayores. Para ello, se desarrollarán iniciativas que favorezcan el envejecimiento activo y, se pondrán los recursos municipales a disposición de la ciudadanía en respuesta a las nuevas necesidades que puedan surgir en el futuro.

Alor honetan burutzea aurreikusi diren ekimenak:

- Zerbitzu eta prestazioa bermatzea, baliabideak egungo beharretara egokituz.
- Prestakuntza eta prebentzio programak martxan jartzea.
- Behar gehien duten pertsonen aldeko programak garatzea, gizarte bazterketa egoerak sahiesteko.
- Zahartze aktiborako programa eta ekimen ezberdinak garatzea.



ZERBITZUAK SERVICIOS

Udala herritarren zerbitzura jartzea eta kalitatezko zerbitzu eta azpiegiturak eskaintzea izango dira lehentasunak alor honi dagokionean.

Herritarren segurtasuna modu berezian zainduko da eta bereziki, hiri mantenu eta kale garbiketari erreparatuko zaio, Zumaia txukunagoa eta garbiagoa eskaini ahal izateko.

Acciones concretas a desarrollar en este ámbito:

- Adecuar la policía local a las necesidades de la ciudadanía.
- Crear una ordenanza de limpieza.
- Acondicionar y cubrir los parques infantiles.
- Mejorar las instalaciones de la playa de Itzurun.
- Mantenimiento y asfaltado de calles y vías públicas y cuidado de jardines.
- Saneamiento de Artadia y de la zona industrial Oikia y Joxe Mari Korta.
- Trabajos de mantenimiento del polideportivo.
- Remodelar el polideportivo Lubaki.
- Crear un plan de mantenimiento de las instalaciones deportivas para planificar las inversiones y establecer prioridades.



GOBERNU ONA BUEN GOBIERNO

Udal jarduna gobernu onean, gobernu onaren balioetan eta kudeaketa zorrotzean oinarrituko da, gertutasuna, elkarlana, gardentasuna eta eraginkortasuna printzipio hartuta.

Alor honetan burutzea aurreikusi diren ekimenak:

- Udala garai berrietara egokitzea, gardentasun, gertutasun eta eraginkortasun printzipioei jarraituta, udal baliabideak optimizatzea lortzeko eta udala herritarrengana hurbiltzeko.
- Udalaren jasangarritasun ekonomikoa bermatzea kudeaketa zorrotza eginez.
- Jardun publikoan gobernu ona, administrazio ona eta etika sustatzea.
- Parte hartze prozesuak sustatzea eta partaidetza eraginkorra eta orokortua izan dadin lan egitea.

SAN PEDRO JAIAK 2016



Danborrada



Burruhandi eta erraldoiak





Alkate soinua eta prozesioa



Su artifizialak



NOLA IKUSTEN DUZU HERRIA GAUR EGUN? ZER HOBETUKO ZENUKE?

Iñaki Atrian - 24 urte



Azken urte honetan nabarmendu egin da herriak izan duen turismoaren gorakada. Hala ere, sektore honetan lan gehiago egin behar dela aipatu beharra dago. Zumaia dituen eta saltzen ez dakizkigun gauza horiek. San Migeleko bistak, adibidez, kanpina, (nire ustetan, nahiko garesti eta urrun dagoena), surfeko eta bodybardeko ikastaroak, jaialdiak etab. Bestalde, zortea gure alde eduki dugula esango nuke, **Ocho apellidos vascos** filmari esker gure herriak izan duen oihartzunagatik, **Mercedes Benz**-eko iragarkiagatik eta orain entzuten den **Juego de Tronos**en grabazioaren zurrumurruak izan dezakeen inpaktuagatik. Argi dago gure herria aukeratua izateko atzean lan bat egon dela edo dagoela, baina ez dezagun ahaztu lehen esandakoa, zortea lagun dugula.

Bestalde, gero eta ekimen gehiago daude Zumaian eta ikusten da jendeak jarrera ona duela hauekiko.

Kaleko irudiari dagokionez garbiago ikusten da, bai, baina puntu garrantzitsu bat falta da ...Komunikazioa!! Herria zozo xamarra dela ematen du. Ez dauka bizitasuna eta beti esaten den adierazpen askatasun hori kentzen digute. Turkian antzeko zerbait gertatu zen eta gaur egun munduko leku ederrenetariko bat da.

Maria Antonia Goikoetxea. 69 urte



Aita Mari auzategiko espaloiak zabaltzea ideia ona izan dela iruditzen zait, baina beste aldea dagoen bezala uztea ez zait egokia iruditzen. Hala eta guztiz ere, berri duen espalo horretan, zenbait baldosa ez daude behar bezala jarrita eta euria egiten duen egunetan, hanka bertan jarritz gero, blai eginda gelditzen zara. Bestalde, Basadi eta Aita Mari auzoak elkartzen dituen kotxeentzako bidea, honek duen trafiko handiarentzat, txikia geratzen dela iruditzen zait.

Begoña 75 urte

Balorazio ona egingo nuke nik. Bazter guztiak txukuntzen ari dira, Jadarre, Aita Mari auzategia, frontoi ingurua... Ni, Aita Mari auzategian bizi naiz eta errepideen berrantolaketa eta argiteria berria asko gustatu zazit, nahiz eta oraindik argiren bat edo beste fundituta dauden. Gainontzekoa primeran.

Larraitx Osa 17 urte

Kiroldegia nahiko zaharkitua ikusten dut adibidez eta bertan berrikuntzak egitea eskatuko nioke Udaletxeari.

Garikoitz Goikoetxea 41 urte



Nik uste dut gauzak kontsentsu handiagoarekin egin behar direla, herritar guztion iritzia aintzat hartuta eta alderdi guztiak ados egonda. Adibidez, kartelen erabakia ez zait batere gustatu, izan ere, nire ustez, hori, adierazpen askatasunaren aurka doa eta nik lehen zegoen bezala utziko nuke, alegia, astelehen eta ostegunetan egingo nuke kartelen garbiketa. Ez dut uste honek turistak uxatuko dituenik, ezta gutxiago ere. Zumaia ez da izan sekula herri turistiko bat eta turismotik bakarrik bizi nahi badugu, zulora goaz segituan. Eta azkenik, ikastetxe arloan egindako laguntzen murrizketen aurka nago, jendea gero eta larrituago dago eta adibidez, jangelako zerbitzuetarako laguntzarik ez badago, gauza asko okertu daiteke.

Marijo Zubia 45 urte



Guraso eta seme alabentzat aterpe moduko bat botatzen dut faltan herrian. Horretaz gain, kale ezberdinetan gertatzen diren ibilgailuen norabide aldaketek asko nahasten naute. Eta azkenik, jar dezatela berriro ere Eusebio Gurrutxaga plazako kioskoa mesedez, izan ere, nire ustez, hori kendu izana izan baita egin den hanka sartzerik handiena, herriko erreferenteetako bat izan baita beti.

Manuel Segurola. 67 urte



Beheko plazako pibote txiki horiek kendu izana hobekuntza nabarmena izan dela uste dut, baita lehen kotxeak igarotzen ziren ibilbidea oinezkoentzat bihurtzea ere. Horretaz gain, orain dela urte batzuk kiroldegia adinduentzat eskaintzen zituen zerbitzuen prezioa murriztea oso ondo etorri zaigu pentsiodunei. Azken urte hauetan ordea, ez dugu izan horrelako deskonturik eta guri, ekonomikoki zaila egin zaigu kuota hau ordaintzea. Baina orain, oker ez banago behintzat, ikasturte berrirako berriro murriztea erabaki dute, eta hala baldin bada, eskertzekoa da.

Haritz Jimenez, 28 urte

Herritarroi Udalak eskaintzen dizkigun zerbitzuei dagokionez, ez dut aldaketa handiegirik sumatu. Herriari dagokionez, zerbait aipatzekotan, turismoak izan duen gorakada nabarmena aipatuko nuke.



Egunotan ika-mika ere izan da sarean, Itzurun ingurunea "Game of thrones" telesail ospetsuaren agertoki bihurtuko ote denaren zurrumurruak medio. Jendea beldur da turismoa masifikatu eta jasan ezina bihurtu daitekeelako. Norbaitek grabaketak ekiditea ere proposatu du...

Nire ustez, irtenbidea ez da aukerak moztea edo "debekua", turismoa hobeto erregulatzeko baizik, eta lan hori Udalarri dagokio zuzen-zuzenean. Jarrera zibikoak nolakoak izan behar diren esplikatzen, informazio kartelak jarriko nituzke nik leku jakinetan: hondartza, Algorri,... eta behar izanez gero, leku horietara datozen turista kopurua nolabait kontrolatu, Urbanen Urederraren jaiolakuan egiten den antzera edo. Turismoari ateak ixtea ordea ez da, ez herriari, ez eta bertako merkataria eta enpresei inongo onurarik egitea. Bestalde, bada ordua baita

norbaitek alderdiaren kolorea albo batera utzi eta aparkamendu faltaren arazoari aurre egiteko. Nik neuk noizbehinka asteburutan lan egin behar izaten dut eta kotxez etxera bueltatzean nonbait aparkalekua aurkitzeko (paolbide inguruan), zoratu egin izan naiz. Eta ni bezala edozertarako kotxea hartu behar izan duten edo behar izaten duten guztiak ere. Entzuna dut poligonoan ere arazoak daudela maiz aparkalekua topatzeko. Ni beti egon izan naiz OTA eta antzeko sistemen aurka, baina zerbait pentsatu beharra dago, nagusiki uda garairako, baina baita gainerako egunetarako ere.

Bestalde, askotan herriko alderdi politiko nagusiak (PNV eta EH-BILDU), Baleike (webgunea nagusiki) panfleto politiko modura darabiltela uste dut, elkarri gauzak leporatzen eta mokoka. Argi dago elkarren artean desberdintasunak dituztela, bestela alderdi bereko kide izango lirateke. Nire ikuspuntutik, ez dute, ez batek eta ez besteak, euren ika-mikak etengabe plazaratzeko beharrik. Koloreak kolore, herriarentzako lan egiteko aukeratuak izan dira, bada, laga ditzatela konstruktiboak ez diren alferrikako denbora galtzeak eta jar bitez denon ardura diren arazoei irtenbideak bilatzen: gazteen langabezia eta lan aukera falta, etxebizitza propioa izateko dugun ezintasuna, turismoa jasangarri egiteko neurriak,... badago non adostu, non lan egin.

LUCIA LACARRA - DANTZARIA



De origen zumaiarra, la bailarina de danza clásica Lucia Lacarra ha logrado postularse como una de las mejores bailarinas internacionales en esta categoría. Así pues, a lo largo de su trayectoria, ha sido reconocida con diversos e importantes premios a su carrera profesional, a su trabajo y a su constancia a la hora de lograr sus objetivos.

Recientemente, Lucía ha vuelto a su municipio natal, para pasar varios días en compañía de su familia. Ocasión que hemos aprovechado para realizar una entrevista donde la bailarina nos ha contado cuáles son sus recuerdos de la infancia, ha hecho mención de sus lugares favoritos de Zumaia y nos ha adelantado parte de sus próximos proyectos y trabajos, no sin antes dejar claro que, dentro de su apretada agenda, siempre guarda y guardará un hueco para volver a Zumaia, su casa y su hogar.





“Zumaia beti izango da nire herria, nire etxea”

Askotan etortzen al zara Zumaiara?

Egia esan ez naiz sarritan etortzen, baina orain gutxienez, lehen baino maizago. Haurra izan dudarik, hona etortzen gara guztiok, umeak egun batzuk igaro dituzan Zumaiara. Bidai asko egiten ditugu eta nire alaba txikia denez, ezin ditugu bidai luzeak egin berarekin, oso zaila delako. Horregatik, amaren etxera etortzen gara eta honek, era berean, Zumaiara bueltatzeko aukera ematen dit.

Zein aldaketa nabari dituzu Zumaiara? Nola aurkitu duzu herria?

Zumaia gero eta ederragoa dago dudarik gabe. Aldaketa ugari daude herrian. Ni txikia nintzenetik gauza mordoak aldatu dira, baina giro berdina gelditu da. Herriko giro jator hau ez da batere aldatu eta hori zoragarria da. Dena den, gero eta gauza politagoak daude eta “8 apellidos vascos” filmean azaldu zenetik ezaguna egin da, baina niretzat, nire betiko Zumaia da.

Zumaiara etortzen zarenean, zein toki bisitatzen dituzu? Zeintzuk dira zure tokirik gustokoenak?

Behin hona etorrita, leku guztietara joaten gara, baina noski, Zumaiara iritsi bezain laster, lehen gauza Paolera joatea da. Izugarritzko paseo ederra dago eta ni Munichen bizita, ura beti faltan botatzen dut. Horregatik, paseo honetara joan, itsasoa ikusi eta behin hor zaudela, sakon arnastea da hoberena. Hau dudarik gabe momentu zoragarri bat da. Arnastean beti pentsatu ohi dut “hau bai dela gauza ederra”.

Etxera etortzeak hainbat oroitzapen eragingo dizkizu. Zeintzuk edo nolakoak dira zure haurtzaroko oroitzapenak Zumaiara?

Nire oroitzapen guztiak pozgarriak eta oso onak dira. Gainera, ni oso gazte joan nintzen herriatik, 13 urte besterik ez nituen eta pentsatzen dut, horregatik ere, beti maitasun berezi batekin gogoratzen dudala nire herria, baita familia ere. Azken finean, beti etxekoen alboan egonda, ez duzu kanpoan zaudenean bezain beste baloratzen eta herriarekin gauza bera gertatzen da. Zumaia izugarritzko herri atsegina eta ederra da eta

ohituta zaudenean ez dituzu gauzak ikusten, baina kanpotik zatozenean, beti ematen du poza etxera bueltatzeko eta kasu honetan, Zumaia beti izango da nire herria, nire etxea.

Nola sentitzen zara Aitzuri frontoian eman duzun emanaldiarekin? Etxean dantzatzeko zein sentimendu eragiten dizkizu?

Izugarritzko poza sentitu dut emanaldi honen aurrean. Alde batetik, Zumaiara izan delako, nire etxean, nire etxeko jendearekin, zumaiarrekin, eta bestetik, oso emanaldi berezia izan delako, dantzari batentzako, frontoi batean dantza egitea ez baita eguneroko gauza bat. Nik antzokietan eta beste hainbat lekuetan dantzatu ohi dut baina inoiz ez frontoi batean. Are gehiago, ez dut uste munduan, frontoi batean dantza egin duen beste dantzarik egongo denik ere! Beraz, “primizia!”. Esan bezala, oso gauza berezia izan da, izugarritzko poza eman dit eta gainera gustu handiz egin dut.

Amaitzeko, zein proiektu dituzun aurreikusita kontatuko al zeniguke?

Momentu honetan proiektu ugari ditut esku artean. Lehenik eta behin, Washingtonera noa. Smithsonian museoan, Euskal Herriko kulturarekin zerikusia duen proiektu bat garatzen ari dira eta honen inguruko emanaldi bat eskainiko dut, gure euskal ohiturak zeintzuk diren erakusteko. Bertan, abenduan Bilbon egin nuen emanaldi baten zatiak dantzatzeko ditut. Washingtonetik, Alemaniara joango naiz. Datorren urtetik aurrera Dortmund-en izango naiz proiektu berri batean murgilduta eta hau gogor lantzen hasi behar dut. Baina hau baino lehen, uztailan, Ukrainara bidaiatzeko dut, Kiev-era hain zuzen, bertan film baten zati txiki bat grabatzeko. Beste proiektuen artean, Madrilera ere egingo dut hilabeteko bisitaldi bat bertan dantzatzeko eta urte amaiera aldera Txinara ere joango naiz.

Esan bezala, han eta hemen, geldirik ez egoteko hainbat ekitaldi ditut esku artean! Baina noski, bien bitartean, Zumaiara etortzen jarraituko dut, nire senarra eta umearekin batera, familian, egun batzuk pasatzera.

MEMORIA HISTORIKOA



Frankistak Zumaian



4 gudari

1937. urtea. Negua da, otsaila, hain zuzen. Oso goiz da eta hotz galanta egiten du Zumaian. Baina hala eta guztiz ere, jada bildu dira Zubitzikiaren inguruan 200 bat zumaia. Kamioi eta autobus ugari dago bertan eta txapel gorridun gizonak taldeka banatzen dituzte herritarrak: haurrak eta adinduak alde batetik, gainerakoak bestetik. Arropak daramatzate zaku batean sartuta. Nora doaz ba horren goiz?

Beraiek ere ez omen dakite. Ezjakintasuna, noraeza, hotza, bakardadea, ... baina bereziki bihozmina, atsekabea, sufrimendua eta oinazea. Hori da beraiek dutena, oinazea. Zumaia eraman dituzte, herritik kanporatu dituzte eta ez dakite nora doazen edo noiz arte.

Denbora igaro da eta hemen Zumaian, ez dabil inor, ez da ia herritarrik geratzen, guztiak kanpotarrak dira, ezezagunak, agintariak, harropuzak, zakarrak. Non daude gure senideak, gure etxeak? Noiz bueltatuko dira? Edo, hobe esanda, bueltatuko al dira noizbait?

Urte asko igaro behar izan dira galdera hauei erantzun ahal izateko. Eta oraindik, gaur egun, ez ditugu lortu ezjakintasun honen erantzun guztiak. Gure iragana da, gure arbasoak dira, gure herritarrak, gure etxeak. Baina tamalez, oraindik zumaia ugari dira, Gerra Zibil garaian herriak eta herritarrek pairatutakoak ezagutzen ez dutenak. Horregatik, Zumaia udalariak, 1936tik 1960ra bitarteko herriaren eta bereziki zumaia gertakariak, bizimodua eta memoria berreskuratu nahi ditu, hau da, gure herriko memoria historikoa ezagutzera eman nahi du. Zer bizi izan zuten gure senide eta arbasoak? Zein da gure historia? Zein gure herriarena?

Gerra Zibilaren garaian, Gipuzkoan, 1000 lagun inguru erbesteratu zituzten eta horietatik 252 zumaia

izan ziren. Zergatik? Zer egin zuten kanporatuak izateko? Erantzuna benetan xumea da: senideren bat Errepublikaren aldeko bandoan eta ihes eginda izantea. Hori da guztia. Inguruko herriekin alderatuta, zalantzarik gabe, Zumaia izan zen kanporatu gehien izan zituen: Donostia 12, Azkoitia 65, Zarautzen 88. Zumaian aldiz, 252.

Bigarren Errepublika garaian eta bereziki, Gerra Zibilean zehar, gure herriak errepresio galanta jasan zuen. 1936ko irailaren 21ean, frankistek eta matxinatuek Zumaia indarrez hartu orduko, gure herria hankaz gora jarri zuten eta honekin batera, garai hartako hainbat eta hainbat familien bizimodua, elkarbizitza, zoria eta noski, hauen etorkizuna. Gazte asko frentera joan ziren beren bizi Errepublikaren alde ematera. Gehienak ez ziren itzuli ere egin. Hau gutxi balitz, senitartekoak etxetik atera eta errukirik izan gabe, beren sustraia kanpora bota zituzten. Beren etxea, ondasunak eta bereziki beren bizi ostu zitzaizkien haiei.

Hauetatik batzuk, itzuli ziren etxera, beste batzuk aldiz bidean gelditu ziren, gerran erailak edo are okerrago, fusilatuak izan ziren. Orain bai, nork kontatuko ditu hauen guztien istorioak? Nork jarriko dio ahotsa Zumaia historiari?

Memoria Historikoaren bitartez, ahots hauek aditzera eman nahi ditugu, iragana gaurkotu, Zumaia eta bere historia berpiztu. Gure historia, gure herriarena eta gure arbasoena ezagutarazi nahi dugu. Milaka eta milaka galderekin bere erantzuna izango dute Memoria Historikoaren proiektuaren baitan. Eta lan honek, 3 proiektu garrantzitsu jasoko ditu: blog baten sorrera, liburu baten argitalpena eta kanporatuak izan ziren emakumeen historiak jasotzen dituen dokumental baten grabaketa.

Durante muchos años y en especial durante la Guerra Civil, Zumaia fue duramente castigada por el régimen franquista. Nuestro municipio sufrió el acoso y la barbarie de aquella época y muchos de nuestros ciudadanos y ciudadanas vivieron en primera persona el sufrimiento, la pena, el miedo y el dolor. Dolor por la pérdida de uno o varios seres queridos, dolor por ser exiliados de sus hogares, sin saber a dónde o por cuánto tiempo. Y dolor también por haberles sido arrebatado, sin pudor ni compasión alguna, su hogar, su futuro y sus vidas. No hay lugar a dudas de que lo ocurrido durante aquellos años cambió el transcurso de nuestra historia y de la vida de todas y todos aquellos que la vivieron. Mediante la Memoria Histórica queremos conocer sus historias y las de aquellos que no han podido llegar a contarla, queremos conocerlo todo. Queremos saberlo todo.

La investigación de la Memoria Histórica de Zumaia abarca tres grandes proyectos: la creación de un blog, la publicación de un libro y la grabación de un documental sobre las mujeres exiliadas durante la Guerra Civil. Todos estos trabajos recogerán la verdadera historia de nuestro municipio, nuestro pasado y el de nuestros familiares y antecesores. Todos ellos darán luz a aquellas preguntas sin respuesta. Todos ellos darán voz a las historias que durante 1900 y 1950 quedaron en el olvido.



BLOG

www.erkibe.eus blogak, lehenik eta behin, Gerra Zibil eta Errepublikara garaiko Zumaiaren eta Zumaiarren inguruko informazio eta dokumentazioa bilduko ditu, hauek guztiak kronologikoki ordenatuz. Dena den, blog honek, helburu du, 1900etik 1950era bitarte Zumaian izandako gertakari garrantzitsuenak azaltzea.

LIBURUA

Aranzadi Zientzia Elkarteak, hitzarmen bat du sinatuta Zumaiko Udalarekin eta honen baitan, Joseba Esnalekin batera, liburu bilduma bat argitaratuko du. Idazketa lana, gehienez, 3 urtetan zehar landuko da eta bildumak, ardatz nagusi gisa izango ditu Gerra Zibil garaiko gertakariak (blogean jasotakoak) eta historia hauen protagonisten testigantzak. Honetaz gain, Aranzadik, hitzaldiak emango ditu ikastetxeetan, herriko gazteenei Zumaiaren historia hurbiltzeko.

DOKUMENTALA

Informazio idatziaz gain, zer hobe, gertakari hauek, protagonisten ahotik entzutea baino? Joseba Esnal duela 5 urte inguru hasi zen kanporatuen inguruko dokumentalaren grabaketa lantzen eta azkenik, hau errealitate bilakatu da. Esnalek, Baleuko ekoiztetxearekin batera eramango du aurrera film labur honen grabaketa. Bertan, Zumaia-
tik kanporatuak izan ziren 12 bat emakumeren testigantzak jasoko ditu, ikusleek, protagonisten eskutik ezagutu dezaten gure herriaren benetako historia zein izan zen.

ANEKDOTA | BITXIKERIA

Joseba Esnalek betidanik bizi izan du gertutik Zumaiaren historia, bereziki Gerra Zibil garaian gertatutakoak, etxean entzun baititu txiki-txikia zenetik honen inguruko pasadizoak. Istorio hauek izan dira gaiaren inguruan bere jakin-mina bultzatu dutenak. Hau eta noski, azken batean, gertaera hauek, gertutik bizi izatea. Berak kontatu digu urte haietan zehar, bere osaba Frantzian hil zela eta inoiz ez zutela jakin non lurperatu zuten bere gorpua. Hori dela eta, Esnalek, duela 5 bat urte ekin zion bilaketa honi eta hainbat saiakeren ondoren, Gernikako artxibategian bukatu zuen, non 1937an lurperatutakoaren zerrenda batekin topo egin zuen. Zerrenda irakurri eta hara non topatu zuen bere osabaren izena! Eta honekin batera baita beste 43 gudarirenak ere, horien artean 5 zumaiarrok! Gainerako gudarietatik dagoeneko, 24 bat lagun identifikatu dituzte, guztiak herri ezberdinetakoak. Joseba Esnalek esan bezala "bereziki zoriontsu sentitzen zara, gudari hauen familiei, beren senidearen berri jakiteak ematen dien poza ikusita. Azkenean, urtetan zehar bizit izan duten ezjakintasunari amaiera ematea lortzen dute, eta honek, benetan kontsolatzen ditu".





HERRIA AKTIBATZEKO BEHARRARI ERANTZUNEZ LANEAN

“Azken urteotan garatu ez diren proiektu berriak jarri ditugu martxan herritarren behar eta nahiei erantzuteko”

Jada, urtebete pasa da udal gobernu berria osatu zenetik. Bi legealdi oposizioan egon ondoren, 2015eko maiatzaren 24an, zumaia-errek argi utzi zuten euren aldaketa nahia eta honekin batera, herria aktibatze dagoen beharra ere helarazi ziguten: etxebizitza babestua sustatu, herri eraikinen mantenua zaindu, irigarritasuna eta mugikortasuna hobetu... Guk, EAJ-

PNV, ilusio haundiz eta erantzukizunez hartu genuen orduan, Zumaia eta bereziki zumaia-errentzat lan egiteko konpromisoa eta hau betetze aldera lan egingo dugu legealdi osoan zehar.

Lehen urte hau, udala eguneratzen pasa dugula esan genezake. Baina eguneraketa honetaz haratago, azken urteotan, zumaia-erren beharrei erantzuna emateko proiekturik garatu ez dela atzeman dugu. Horregatik, EAJ-PNVk, herritarren alde lan eginez, hainbat ekimen jarri ditugu martxan, besteak beste, Axular ibiltokiaren proiektua, udaltzainen eraikinen birgaitzea edo gatzetxola eraikin berriaren proiektuaren idazketa. Honetaz gain, Paol muturraren zati zaharrari behin betiko konponketa emateko 3 milioi inguruko inbertsioa ere lortu dugu Eusko Jaurlaritzatik.



ETORKIZUNEN ZUMAIA DENON ARTEAN ERABAKITZEKO GARAIA DA

“Herritarrek Plan Estrategikoan azaldutako kezkei erantzun egokia emateko, ezinbestekoa da Udal gobernuaren jarrera aldaketa”

“Inakzioa” egitea leporatu zigun EAJk aurreko legealdiz, “herria hiltzen uzten ari” ginela. Oposizio bortitza eta gogorra egin zigun lelo horren bueltan, eta lortu zuen bere helburu bakarra: alkatetza bereganatzea. 75 botoerengatik bakarrik, baina lortu zuen. Gu oposiziora. Onartu, eta zumaia-erren alde lanean serio jarraitzea izan da gure hautua; oposizio

‘zintzoa’, eta betiere botoa eman ziguten zumaia-erren alde, eta eman ez zigutenean alde ere bai, jakina.

Batzordeak “informatiboak bakarrik” direla esan digute. Gure ustez, batzordeak dira ekimenak proposatzeko, eztabaidatzeko eta elkarlanerako gune aproposak. Udal gobernu honek ez du lana batzordeetara eramaten; aldiz, komunikabideei begira ari da lanean, bere irudia puztuz, eta gero betetzen ez dituen proposamenen berri emanez. Denbora pasatzen uzten du gero, eta proposamen horiek bete gabe geratzen dira.

Hor dago pankarten, kartelen eta antzekoen inguruan egiten ari dena, arazorik ez dagoen lekuan arazoak sortuz. Ulertezina den portaera, alde-bakarrekia, zentzurazalea eta autoritarioa ari da erakusten. Bitartean, eragileak ari dira elkarriketarako borondatea



URTEBETEN LEGEALDIA ZUMAIAN

“Zumaia, gure herria: orainetik etorkizunera begira. Mundura irekita, elkarbizitzarako herria”.

Ha pasado un año desde la constitución del nuevo Ayuntamiento de Zumaia. El resultado fue muy reñido entre dos fuerzas políticas PNV y BILDU, con un empate a seis concejales. En este tiempo la labor del Partido Socialista (PSE-EE) ha sido decisivo para posibilitar la gobernabilidad del municipio.

Como siempre, los socialistas, hemos actuado mirando por los intereses de los ciudadanos y ciudadanas de Zumaia, en este sentido, hemos sido favorables a la aprobación del presupuesto, en el que reivindicamos las cuestiones fundamentales que aparecían en nuestro programa: un incremento en las partidas que tuvieran que ver con la acción social, con el empleo y el compromiso en firme con la actuación en un barrio como

Eta noski, ezin ahaztu espazio publikoaren erabilera neurtuko duen ordenantzaren idazketa. Honen aurrean, oposizioak "ilegitimo" hitza erabili ohi du baina, gogoratu beharrean gaude, aurreko legealdian, Donostian, Bilduk horrelako ordenantza bat aplikatu zuela. Hau ez al zen ba, "ilegitimoa"? Zumaiakoa zentsura da eta Donostiakoa ez? Ez al daukagu zumaiarrok, herri txukun eta garbi baten alde egiteko donostiarrek dituzten eskubide berberak?

Ez dugu eztabaidatzeko gurarik, Zumaia eta zumaiarrentzat arduraz lan egiteko desioa eta gogoia baizik. Herritarrek dira gure lehentasuna eta beraiengandik gertu egotea eta euren beharrak asebetetzea lehenetsiko ditugu, gaur, bihar eta beti. EAJ-PNVk herri bizi eta koloretsu baten aldeko apustua

egiten du, atsegina, hezitzailea, dinamikoa eta bereziki errespetuan eta berdintasunean oinarritutakoa. Eta nola ez, herritar guztien elkarbizitza, segurtasuna eta ongizatea lehenetsi eta bermatuko dituen noski. Hau da gure herri ikuspegia eta honen alde lan egingo dugu etengabe, guztion artean, Etorkizuneko Zumaiaren bidea definitu eta eraiki dezagun.

Desde EAJ-PNV estamos trabajando en respuesta a las necesidades reales de la población zumaiarra. Estamos aquí para trabajar, desde una gestión eficaz y transparente, por y para las personas. Tenemos la firme voluntad de construir un municipio amable, vivo, dinámico y cohesionado, donde todas y todos podamos convivir y construir juntos, un ilusionante proyecto de futuro.

erakusten behin eta berriz. Udal gobernuak agindu zuen eragileekin bilera egingo zuela, denon artean adosteko gai honekin zer egin, baina proposamena ez du bete oraindik.

Plan Estrategikoan burubelarri ari gara lanean, herritarrekin batera; egitasmo horretan, herritarren parte hartzea eta iritziak bermatuko duen bidea zehaztuta dago, eta agintarioi, betetzea dagokigu.

Plan horren baitan dago hondakinen kudeaketa, adibidez. Aurreko legealdian ondo kostata lortu zen akordioa eragileen artean (tarteak, egungo alkatea ere bazen), eta aukera izan orduko, hautsi egin du EAJk. Ulertezina da EAJk Arrasaten hondakinen mahaiaren lortutako akordioa bete eta gaika %80 sailkatzea, eta Zumaian akordio berdin-berdina bete beharrean

akordioa hautsi eta soilik %40ko gaikako bilketarekin konformatzea.

Agintean den alderdiarekin elkarlanerako aukera ikusten dugu, eta horregatik, joan zen urteko irailean, proposamena luzatu genion EAJri, 40 puntuz osatua, elkarlana proposatuz, bion hauteskunde programetan zetozelako puntu horiek. Erantzunik ez dugu jaso, eta hori edukazio eta errespetu falta handia da. Ezezkoa bada erantzuna, hain zaila al da esatea?

Guk jarraituko dugu gure bidean, lanean serio zumaiar guztien alde. Makina bat mozio aurkeztu ditugu urtebete honetan, batzordeetan proposamenak egin ere bai, eta horrela jarraituko dugu. Hori da oposizio 'zintzoa' egitea, bakarrik herriaren eta herritarren alde lan eginez, alderdikeria alde batera utziz.

San José para su recuperación y eliminación de barreras arquitectónicas, así como diferentes actuaciones muy importantes, en el resto del municipio. Pero esto, no es un cheque en blanco ni mucho menos y estamos atentos y vigilantes de cara a su cumplimiento, y las nuevas cuestiones de cara al año que viene.

PSE-EEren funtsezko zereginetako bat da herriko ekintzetan parte hartzen duzen erakundeekin biltzea, haiei entzutea eta egiten dituzten eskaerei erantzutea. Eta idatzi hau irakurriko duzun askok badakizue horrela egin dugula eta horrela egiten jarraituko dugula. Zuei esker hainbat kasutan egiaztatu dugu eskaera eta kontsulta batzuek zenbaitetan ez dutela erantzunik jasotzen. Hala gerta ez dadin, gu izango gara zuen

bozgorailu. Oraintxe, Plan Estrategikoa lantzen ari garen momentu honetan, une garrantzitsu batean murgilduta gaude. Izan ere, bertan jasoko dira guztion artean eraiki nahi dugun etorkizuneko Zumaiaren jarraibideak. Ezinbesteko elementu diren inbertsioez haratago, bizikidetzaren, zumaiar guztien eskubideen eta aukeren berdintasunaren, kulturen eta, batez ere, gure etorkizuna diren gazteenen hezkuntzaren inguruan printzipioak finkatuko dituen herri bat diseinatzeak funtsezko gaiak plan horretan biltzea garrantzitsua da.

No quiero terminar, sin aprovechar esta oportunidad para dejaros el correo a través del cual podéis poneros en contacto siempre que lo veáis oportuno y nos trasladéis todo aquello que consideréis de interés para el pueblo.

Dagoeneko udan murgilduta gaudela, zer hobe musika baino gure herria alaitzeko? Hemen dugu jada Zumaiako Nazioarteko Musika Jaialdiaren 32. edizioa. Bertan, uztailaren 31tik aurrera, musikari zumaiarrek zein nazioartekoek eskaintako ekitaldiez gozatzeko aukera izango dugu: San Pedro Abesbatzaren emanaldia, herriko gaztetxoan klarinete kontzertua La Caña Quartet taldearekin, zinema eta musika nahasten dituen emanaldia, musika barroko kontzertua... Emanaldi aukera zabala, zein baino zein interesgarriagoa. Jaialdiak, musika klasikoa du ardatz gisa baina aurten, dantzak, euskal musikak eta jazzak ere, besteak beste, izango dute bere lekua egitarauaren baitan. Jantzi dezagun Zumaiak kolorez eta doinu atseginaz. Gozatu dezagun uda giroaz eta musikaz!

ZUMAIAKO 2016 Musika Jaialdia

Uztailak 31, igandea
19:00 Oxford aretoan
Jaialdiaren aurkezpena Klarinete kontzertua: La Caña Quartet.

Abuztuak 1, astelehena
20:30 Parrokian
Sapere Aude Sinfonietta + San Pedro abesbatza, Fernando Velázquezekin.

Abuztuak 3, asteazkena
22:30 Oxford aretoan
Zinea eta Musika: Un Piano de Cine, Jorge Luis Zulueta.

Abuztuak 4, osteguna
20:00 Odietan
Dantza: Fusioak; Aukeran dantza konpainia.

Abuztuak 5, ostirala
22:30 Aita Mari aretoan
Olatz Zugastil.

Abuztuak 7, igandea
20:00 Komentuan
Joaquín Aslaín, tenorea + Kanako Kimura, pianoa.

Abuztuak 10, asteazkena
20:00 Oxford aretoan
Mundu Berria, Tempora.

Abuztuak 11, osteguna
20:30 Parrokian
Donostiako Musika Hamabostaldia
Al Ayre Español, Eduardo López Banzo zuzendua.

Abuztuak 13, larunbata
22:30 Aita Mari
Scat, Aina Ortega.

Abuztuak 15, astelehena
19:00 Odietan hasita
Haurrentzat festa: Txorotzaranga.

31 de julio, domingo:
19:00 Sala Oxford, Concierto de clarinete y presentación del festival: La Caña Quartet.

1 de agosto, lunes
20:30 Parroquia, Sapere Aude Sinfonietta + San Pedro abesbatza, con Fernando Velázquez.

3 de agosto, miércoles
22:30 Sala Oxford, música y cine: Un Piano de Cine, Jorge Luis Zulueta.

4 de agosto, jueves
20:00 Odieta, danza: Fusioak de la compañía Aukeran.

5 de agosto, viernes
22:30 Aita Mari, Olatz Zugastil.

7 de agosto, domingo
20:00 Convento, Joaquín Aslaín, tenor y Kanako Kimura, piano.

10 de agosto, miércoles
20:00 Sala Oxford, Mundo Berria, Tempora.

11 de agosto, jueves
20:30 Parroquia, Quincena Musical: Al Ayre Español, dirigido por Eduardo López Banzo.

13 de agosto, sábado
22:30 Aita Mari, Scat, Aina Ortega.

15 de agosto, lunes
19:00 Desde Odieta, Fiesta infantil: Txorotzaranga.

Zumaiako Udala
Donostiako Musika Hamabostaldia
Quincena Musical de San Sebastián
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

UDALA SAREAN



FACEBOOK
ZUMAIAKO UDALA



TWITTER
ZUMAIAKO UDALA



YOUTUBE
ZUMAIAKO UDALA



WEB
ZUMAIA.EUS